

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

156/2022 Foru Agindua, apirilaren 13koa. Onestea aparteko almazariak erosteko laguntzen deialdia eta kreditu erreserba 2022rako

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuz aldatua), aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak onetsi ziren.

Lehen aipatutako dekretuaren 9. artikulua dio urtero-urtero onetsiko dela laguntzetarako deialdi bat, eskaerak aurkezteko epea eta eskaerei buruzko ebazpena emateko kredituak zehaztuz.

Beharrezkotzat jotzen da aparteko almazariak erosteko laguntzen 2022rako deialdia onestea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aparteko almazariak erosteko 2022rako laguntzen deialdia onestea. Hona hemen xehetasunak:

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako erregistroetako batean.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoan, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzan dutenak.

Eskaerak aurkezteko epea: hogeit hamar egun baliodun foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Kreditu erreserba: 3.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 40102. G/419402/77000401 “zaldi azienda hobetzeko laguntzak” partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 22.1.22.105.1234/000).

– Dirulaguntzen zenbatekoa: gehienez ere, 3.000,00 euro emango dira dirulaguntzetan deialdi honen barruan, eta dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 13a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza Saileko zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE